

JAI EGUNEN AUZIA

Abenduak 3an (Euskararen Eguna) jai egitea proposatu du 'NEAE' elkarteak

■ Ekitaldia antolatu du NEAEk: 12:00etan Plaza Berrian ■ Zenbait komertzio eta erakunde jai egingo dute ■ Udal zerbitzu askok jai egunetako funtzionamendua izango dute.



Hispanidadearen egunean, Hernanin batzuk lan egin zuten.

NAZIO Egutegiaren Aldeko Ekimenak Euskararen Eguna jai egitea proposatu du. Elkarre honak proposatzen duena da "espainiar" juzgatzen dituzten jai egunetan lan egitea (Santiago eguna, Hispanidadearen eguna eta Konstituzio eguna).

Hiru egun horien ordez, proposatzen dute beste egun batzuetan egitea jai. Horieta bat da Euskararen Eguna.

Nazio Egutegiaren Aldeko Ekimena zenbait komertzio, elkarte eta gizarte erakundek osatzen dute. Pilarika egunean lan egin zuten, eta Konstituzio egunean ere (abenduak 6) lanera joango dira. Kronikari adierazi diotenez "Hernaniarrei dei egiten diegu Euskararen egunean jai egin dezaten eta konstituzio egunean lan".

UDAL ZERBITZU ASKO JAI EGUNETAN BEZALA Udal zerbitzu gehienek jai

egunetako funtzionamendua izango dute datorren astelehenean. Legez, abenduaren 3a lan eguna da. Bere garaian, Langile Komiteak lan egutegi propioa aurrera atera nahi izan zuen: "jai espainiarren" ordez beste hiru jaiegun zituena. Baina, EA-EAJ koalizioak errekurtsio judiziala jarri zuen horren kontra eta auzitegiak arrazoi eman dio.

Eta orain zer? Ibai Arístimuño Batasunako pertsonal zinegotziak Kronikari azaldu dionez, Udal gobernuak onartzen du auzitegiaren sententzia. Baina, Langile Komiteak aurkeztutako jai egutegia ere haintzat hartu du udalak. Horregatik, Langile Komitearen kalendario laboralean jai dela ikusita, udal zerbitzuek jai egunetako funtzionamendua izango dute. Hala ere, legez lan eguna denez, langile bakoitzak erabakiko du lanera joan edo ez.

Udaletxean bertan, Erregistroa bakarrik egongo da zabalik. Kiroldegiak igandetako ordutegia izango du eta arratsaldeko ikastarorik ez da izango. Liburutegia itxita egongo da eta Biteri ere bai publikoarentzat; Udal Euskaltegiak klaseak normal emango ditu. Musika Eskola, Informatika Aretoa, Ongintzako zenbait zerbitzu ere itxita egongo dira Euskararen egunean.

EA-EAJ : "ASUNTO GRABEA"

EA-EAJ-rentzat gertatuko dena "bidegabekeria" da, eta "asunto grabea". Rekondoren ustez, "langile batzuren kapritxo herriari kendu egiten zaio zerbitzu batzuk jasotzeko eskubidea. Eta horren erantzule, udala eta alkatea bera da." EA-EAJko buruak dionez, gauza bat da langileek oporrak hartzea eta bestea udalak zerbitzurik ez ematea. □

Batasunak aurkeztutako mozioa onartu zen Plenoan

■ Egoera politikoaren azterketa egiten du eta konpontzeko bideak planteatu ■ Taxi tarifak igotzea ere onartu zen.

OSTEGUNEKO plenorako txosten bana aurkeztu zuten Batasuna eta EA-EAJ taldeak: 1) EA-EAJ taldeak aurkeztua: 'Gizon-emakume guztion bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen aldeko adierazpen instituzionala'. 2) Batasunak aurkeztua: aurreko adierazpenari eginiko mozioa.

EA-EAJrena ez zen onartu (EA-EAJko lau zinegotziak alde eta Batasunako 7ak kontra bozkatu zuten); Batasunakoa bai (Batasunako 7 zinegotziak alde eta EA-EAJko lauak kontra bozkatu zuten).

oso zaila dela alde bat mehatxatua dagoen bitartean, justu, pentsatzen duena pentsatzen duelako. Bestalde, esan zuten, herriaren hitza errespetatzeko eskatzen dutenak direla eskubide hori zanpatzen dutenak; hain zuzen, herriak borondatez aukeratutako erakundeak onartzen ez dituztelako.

Honetaz gain, aipatu ziren Udalbiltza, presoaren eskubideak, atentatuak, torturak...

Jendeak ere hitz egin zuen. Batek esan zuen, "bakoitza bere buruari begira" ari dela eta pausuak emateko, hori ahaztu egin behar dela.

EZTABAIDA LUZEA

Eztabaida luzea izan zuten gobernu taldekoek eta oposizioak. Eztabaida gatazka politikoaren ingurukoa izan zen. Gobernu taldekoek azpimarratu zuten, kondena hutsez ezin dela aurrera egin. Denek daukatela arrazoiaren bat kondenak egiteko, baina, irtenbidea etorriko dela, eskubideak errespetatzetik eta talde guztiak ados dauden puntutan pausuak ematek.

Oposizioak azpimarratu zuten eztabaida politikoa izatea

TAXIEN TARIFAK ETA 'EMAKUNDE'ren IDATZIA

Beste puntu askoren artean, taxiaren tarifei buruzkoa eta Emakundek aurkeztutako adierazpena onartu ziren plenuan.

Taxien tarifak horrela geratuko dira: Egunez, irteera: 388 pta (2,33 €); kilometroko: 121 pta (0,73 €); zai egon den ordu bakoitza: 2.330 pta (14 €). Gauzez, irteera: 388 pta; kilometroko: 195 pta (1,17 €); zai egon den orduko: 3661 pta (22 €). □

'AHT GELDITU' TALDEA

Ibilaldia bihar, Abiadura Haundiko Trenaren proiektua salatzen

■ Goizeko 09:00etan irtengo da Gudarien Plazatik.

SANTA BARBARA ELKARTEA

Bazkide afaria gaur da, Santa Barbara Elkartean

■ 80 lagun bilduko dira urteroko bazkide afarian
■ 20:30etan hasiko da.

Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

Antziola-Motor

- ▶ Kotxe berri eta aukerako en salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

Ikusi al duzu Mondeo berria ?

Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Honako eskeintza hauek dauzkagu zuretzat:

mobila : SIMENS M35i
9.900 pta kontratuarekin.

mobila : PACK ACTIVA
14.900 pta (Telefono guztietan 5.000 pta deietan)

ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

Movistar Activa
Hartu eta hitzegin

ordenagailua:

AMD 900
15" Montorea
56 Kbps Barruko Modema
Soinu T. eta Altabozak

48.900 Pts
293,89 €

ARTISAU AZOKA ETA DANTZARI TXAPELKETA

Artisauek 26 postu jarriko dituzte Gudarien plazan, bihar

■ Hernaniko 6 artisau egongo dira ■ Janari postuak, dultzaineroak, buztin tailerra jendearentzat, eta abar ■ Dantzari Txapelketa Plaza Berrian da.



Artisau eta jende asko bildu zen iaz Hernanin.

AURTEN egingo da 22garren artisau azoka Hernanin, Gudarien plazan. 26 artisau, 6 janari postu eta talogileak egongo dira, eta ohiturak segitzen badu jendea lepo. Goizeko 11:00-etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

LAU HERNANIAR Hernaniarrak dira: Axun Esnal eta Nagore Insausti pitxigileak, Dionisio Usarraga saregilea, Benigno Albeniz uztargilea, Amaia Oihaneder zeramaika egilea eta *Kulunka* marketeriagilea.

DANTZARIRIK ONENAK Hamalau urtez azpikoentzako dantza sueto txapelketa egingo da Plaza Berrian, bihar, eguerdiko 12:00etan. Artisau azoka eta dantzari txapelketa elkarrekin egiten dira, biak ere erakarriagoak izateko-edo.

Euskal Herri mailako bikoterik onenak datoz dantzatzera. Guztira 15 bikote: gipuzkoarrak 13, bizkaitarra 1 eta nafarra bestea. Euskal Herriko txapelketako lehenengo 10 bikoteak Hernanira etortzekoak dira.

Hogeitamar dantzarietatik hiru hernaniarrak dira: Mikel eta Nerea Lasa (bikotea) eta Aimar Abad. Aimarrek Aitziber Amantegi urnietarrarekin egingo du dantza.

Antolatzaileek esan digutenez, euria ari badu Sandiusterrin jokatuko da txapelketa. □

■ ESKUBALOIA

Aloña Mendi-Hernani

■ Gaur 17:45etan Oñatin.

■ BOLEIBOLA

UPNA-UPV Hernani

■ Iruñean gaur 16:30etan.

■ WATERPOLOA

Santoña-Hernani emakumezkoetan

■ Santoñan 18:00etan.

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	WATERPOLOA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Hernani-Irun CF 1902	Zubieta	Bihar, 16:30	Eusk.H. Liga	Hernani A-D.Naútica	Kiroldegia	Bihar, 13:00
Emakum. liga.	A.Vitoria-Hernani	Olaranbe	Bihar, 11:30	Eusk.H.L. Emak.	Santoña-Hernani	Santoña	Gaur, 18:00
1. Erregionala	Hernani-Allerru	Zubieta	Gaur, 16:30	Eusk.H.L. 2.maila	Hernani B-Easo	Kiroldegia	Bihar, 12:00
Gazteak. L. Naz.	Bermeo-Hernani	Itxas-Gain	Bihar, 17:00	ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gazteak Ohor.	Euskalduna-Hernani	Allurralde	Gaur, 18:00	Seniorra. 1.maila	Kakarraldo-Hernani	Plentzia	Bihar, 12:00
Kadet. Ohor.	Añorga-Hernani	Rezola	Gaur, 12:00	Jubenila. Euskal	Hernani-Gernika	Landare	Gaur, 16:00
Kadet. 2.maila	Hernani-Ostadar	Zubieta	Gaur, 10:30	Kadetea. Euskal	Hernani-Gernika	Landare	Gaur, 15:00
Haurrak Ohor.	Hernani-Anaitasuna	Zubieta	Bihar, 11:30	Infant. Lagunar.	Hernani-Irun	Landare	Gaur, 10:30
BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	ESKUBALOIA	TALDEAK	NON	NOIZ
1. Autonomika	UPNA-Hernani	Iruña	Gaur, 16:30	Euskadiko L.	Aloña Mendi-Hernani	Oñati	Gaur, 17:45

PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	NON	NOIZ
Paleta goma neskek	Usabiaga-Lujanbio	Hoz-Salaberria	Kiroldegian	Gaur, 16:00
Eskuz Binaka	Ezeiza-Huizi	Ikaskirola	Kiroldegian	2garren partidua
Eskuz Binaka (finalerd.)	Alvarez-San Sebastian	Txapagain (Ordizia)	Kiroldegian	3garren partidua
Eskuz binaka	Zurriola	Irazustabarrena-Elizalde	Atano III	Gaur 19:00
Eskuz binaka	Apezetxea-Grajal	Gazteleku 1 (Andoain)	Kiroldegian	Bihar 10:30
Eskuz Binaka jub.	Azpirtarte-Iraola	Gazteleku 2 (Andoain)	Kiroldegian	2garren partidua
Pala motza	Ubarretxena Galtartza	Gazteleku (Andoain)	Kiroldegian	3garren partidua
GIPUZKOAKOTXAP. FINALERDIAK. Itzulera partidua.				
Eskuz bin 1. maila Senior	Jon Zabala-Argote	Zazpitu (Amezketak)	Amezketak	
Eskuz bin 1. maila Senior	G.Erroizenea - Oteiza	Oskarbi (Elgeta)	Elgeta	
Eskuz binaka 3. maila	Oier Mendizabal/Landa	Lagunak (Elgoibar)	Añorga	
Eskuz binaka Jubenilak	Yagoba Yubero	Oskarbi (Elgeta)	Elgeta	



Lide Agirrezabala eta Eider Balerdik piano kontzertua emango dute Donostian

■ Gaur, 19:00etan, Donostiako udaletxean.



Bi Pianistak pianoa joz. Urduri xamar omen daude kontzerturako.

ZORTZIGARREN *Donostia Hiria* nazioarteko piano lehiaketako irabazleek kontzertua emango dute gaur. Tartean bi Hernaniar gazte daude, lehen sariak irabaziak biak ere: Lide Agirrezabala eta Eider Balerdi.

“EGUNERO ENTSAIATU” Musiko bizitza lotua da inondik ere. Lide eta Eiderrek aitortu digutenez egunero entsaiatzen dute eta horrez gain musikako klaseetara joaten dira. □

■ PELOTA -KRONIKA TXAPELKETA-

Gaurko partidua:

Pello-Alex / Intxauspe-Goiburu; Garmendia-Zabala / Alvarez-Arruti

■ Arratsaldeko 16:00etan Tilosetan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes Etxeberri
☎ 943 557738
►Gauetz: Bulnes Etxeberri
☎ 943 557738

OROIGARRI MEZA

JOXEPA ARREGI eta PILAR ARANBURU
(*Naparraldekoak*)

Joxepa Arregi zenaren eta Pilar Aranburu bere alaba zuenaren senitartekoek oroigarri meza eskeini nahi diegu. Lagun eta kide guztiak bertara etor zaitezten gonbidatzen zaituztegu.

Oroigarri meza, **bihar, igandea**, goizeko 10:30etan Ereñotzuko San Antonio parrokian.

IRAGARKI MERKEAK

■ Gazte bat behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Euskaraz dakiena. Interesatuak deitu: **658 750896** edo **943 364605** telefonora.

■ Hernani inguruko jatetxe batean sukalde laguntzaile bat behar dugu. Garraiatzeko modua beharko du. **943 55 02 40**

XXII ARTISAU AZOKA HERNANI
ABENDUAK 2, IGANDEA
GUDARIEN ENPARANTZA

www.gabiltza.org/hernani

Gabilza
Herriko Kulturaren Zentroa

ORONA

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Hernaniko Kronika interneten

www.hkronika.com